


Urte luzeetan Espainiako indar armatuen presentzia etengabekoa izan da gure kale eta errepideetan. Orain ordea, errepidetako kontrolez gain, kontrol modu berriak ikusten ari gara: Guardia Zibilaren kontrolak Oñatiko mendietan. Azken hilabeteotan, Guardia Zibilak errepidean, kalean edo mendian dabiltzan herritarrak geratu, miatu eta galdekatu egiten dituzte eta hainbat herritar denbora luzez atxikitu izan dituzte. Hamarkada luzeak daramatzate estatuko indar armatuak euskaldunon hitza eta erabakia eragotzi eta Espainiaren batasuna inposatzeko jardunean. Gainera ez dute inongo konplexurik eduki eskura dituzten bitarteko errepresibo guztiak erabiltzeko euskal herritarren giza eskubideak urratzeko eta guzti horretaz ondo dakigu oñatiarrok, ez baitira gutxi guardia zibilaren esku torturatuak eta espetxeratuak izan direnak. Ezin dugu ahaztu ere Susana herriko alabari Irunberrin gertatutakoak, non guardia zibilak eraila izan zen.

Azkenaldiko Guardia Zibilaren presentzia itogarri hau gutxi ez eta orain dela aste batzuk iragarri dute Oñatin kontzentrazio edo/eta manifestazio bat egitekotan direla. Arrazoia zein eta bertan diren guardia zibilei sufritzen duten jazarpenaren aurrean elkartasuna erakustea. Hau paradoxa!!!!

Aro politiko berria ireki zaigu Euskal Herrian. Eragile politiko, sozial, sindikalak, (ETA erakundea barne) bakerantz eta normalizazio politikorako urratsak ematen ari diren bitartean gerra egitera etorri ziren Espainiako indar militarrek errepresio eta jazarpen estrategian murgildurik jarraitzen dute. Guzti honen aurrean atzean sinatzen dugunok Oñatiko udalari honako puntuak onartzera eskatzen diogu:

- 1.- Gure udalerrian Guardia zibilaren presentzia eta kontrolen amaiera lehen-bailen eman dadila eskatzen dugu. Kalean, errepidean zein mendietan Oñatiko herritarrak inongo jazarpen eta mehatxurik gabe lasai eta libre ibiltzeko eskubidea aldarrikatzea eskatzen dugu.
- 2.- Bake eta normalizazio politikora eramango gaituen prozesu demokratikoa garatu ahal izateko euskal herritarren aurkako errepresio mota guztiak alboratzea eskatzen dugu. Inongo inposizio eta mehatxu militarrik gabeko eszenatoki demokratikoa aldarrikatu nahi dugu, proiektu politiko guztiei (independentzia barne) egingarri izateko aukera sortuz.
- 3.- Guardia zibilaren sindikatuak Oñatin iragarrita duen mobilizazioaren aurrean herritar talde honek antolatuko dituen mobilizazioekin bat egitea eskatzen dugu, baldin eta Guardia Zibilaren aldetik mobilizatzeko deiak bere horretan jarraitzen badu.
- 4.- Gatazkaren konponbidean Espainiatik etorritako gorputz militar eta polizialak Euskal Herritik alde egiteko eskaera egitea eskatzen diogu Oñatiko udalari. Bake garaia da. Alde egiteko garaia da.
- 5.- Oñatiko udalak adierazpen hau prentsa bidez Oñatiko herriari zabaltzeko erabakia hartzea eskatzen dugu. Honetaz gain eskaera hauek Espainiako barne Ministerioak Gipuzkoan duen delegaziora bidaltzeko erabakia hartzea eskatzen dugu.



OÑATIKO UDALA	
Erregistro Data	
2011 IRA 26	
SATUTUA	IRTEIRA
2061	